



Astelehenean hasiko dira 'Kutsidazu bidea, Ixabel' filmatzen Gaztelun

FILMAKETA ▶ Irailaren erdialdera arte luzatuko da grabaketa; Asteasun ere ariko dira; Eguberrietan bukatu eta otsailean ikus ahal izatea espero dute ▶ 6



Filmean parte hartuko dute aktoreak, zuzendariak eta beste partaideak atzo Donostian. IÑIGO TERRADILLOS



NOELIA LATABURU

Festa giroan murgildu dira jaien lehen egunean

ALEGIA ▶ Suziria bota zuten egitarau ofizialean; alternatiboetan mozorroen eguna izan zuten; gaur, rock kontzertua ▶ 5

TOLOSA ▶

Tejada, Salvador eta Anduezaren jazz doinuak

Gaur gauean Fronton kafetegian ▶ 2

HERRIA ▶

Behar-Zana errebote taldeak Euskal Herriko Txapelketa du jokoan lehen mailara igotzeko

Bigarren mailako finala jokatuko du bihar Hiriburun; elkarteak autobusa doan jarri du zaletuak joan daitezen ▶ 7

LEITZA ▶

Nafarroako Segalari Txapelketa, 25ean

Etzi Iturenen zen jokatzea ▶ 7

GAU GIRO ▶

LEIRE MONTES

Jazz musika gustuko duenak ezinbesteko hitzordua du gaur gauean. Gau Giro-ren baitan, Special Trio-ren emanaldia izango da entzungai, 22:30ean, Fronton kafetegian. Bill Evansen omenezko kontzertua eskainiko dute Gonzalo Tejada kontrabaxuak, Iñaki Salvador pianojoleak eta Mikel Andueza saxofoi altua eta sopranoak osatutako hirukoteak.

Ez da izango aurtengo Gau Giro-ko jazz emanaldi bakarra. Musika estilo hori ezagutarazteko eta sustatzeko asmoz, irailaren 2an ere beste kontzertua antolatu dute: hain zuzen ere, Tolosa Session, Tolosako musikarien jazz emanaldia. Saio hori ere Fronton kafetegian izango da, 22:30ean.

Gonzalo Tejada (kontrabaxua). Donostian jaioa da (1960). Instrumentista gisa lan handia egin du, ez hark sortutako taldeekin soilik, baita Espainiako eta nazioarteko jazz musikari entzutetsuekin elkarlanean ere. Hainbatetan, Slide Hampton, Dizzie Gillespie eta Archie Sheep bezalako jazz musikari handien laguntzaile izana da.

1981. urtean bere lehendabiziko taldea sortu zuen: Eider-jazz izenekoa. Pirineos Jazz Orkestrako partaide da taldearen sorreratik, eta hainbat musika taldetako zuzendari: Tejada Electric Quartet eta Gonzalo Tejada New Quintet, besteak beste.

Donostiako Jazzaldiaren eta Eusko Jaurlaritzaren sari garrantzitsuak irabazi izan ditu. 1993. urtean Bakarleri Onenaren saria jaso zuen Getxoko Jazzaldian; horixe izan da kontrabaxujole batek sari hori irabazten duen lehen aldia.

Gaur egun, Euskal Herriko Goi Mailako Zentroan, Musiken, ematen ditu eskolak; hain zuzen ere, Jazzaren Kontrabaxua eta Inprobisazioaren Teoria eta Praktika irakasten ditu. Gainera, jazz saileko zuzendaria da.

Hirukote bereziaren doinuak, gaur, Bill Evansen omenez

Gonzalo Tejadak, Iñaki Salvadorrek eta Mikel Anduezak, Special Trio taldeak, jazz kontzertua eskainiko dute gaur, Fronton kafetegian (22:30), Gau Giro-n



Iñaki Salvador pianojole donostiarrak. HITZA



Mikel Andueza. HITZA



Gonzalo Tejada. HITZA

Mikel Andueza (saxofoi altua eta sopranoa). Mikel Andueza nafarrak Madrilgo Kontserbatorioan bukatu zituen bere ikasketak. Pedro Iturralde maisuarekin; ohorezko matrikularrekin amaitu zituen ikasturte guztiak, eta karrera amaierako ohorezko aipamena ere jaso zuen. Bostoneko (AEB) Berklee College of Music zentro ospetsuan jarraitu zituen bere ikasketak: *cum laude* notarekin amaitu zuen, gainera, eta saxofonista aipagarriarenari Perfor-

mance Award saria eman zioten.

Talde askoren kolaboratzaile izan da; besteak beste: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Bilboko Orkestra Sinfonikoa, Espainiako Gazte Orkestra, Iruña Big Band, Miguel Riosen Big Band, Pablo Sarasateko saxo laukotea, Donostiako Banda Sinfonikoa eta Harvard University Theatre. Jazzaldi askotan ere hartu du parte: Donostia,artzelona (Katalunia), Gasteiz, Zaragoza (Espainia), Baio-

na, Leverkusen (Alemania), Galizia, Kanariar Uharteak...

Superkintet izeneko taldeko partaidea da egun: bera da zuzendaria, eta haize instrumentu arloan aritzen da, Chris Kase tronpetajole ipamerikarrarekin batera; sail erritmikoa, berriz, Iñaki Salvador pianojoleak, David Gomez bateriak eta Gonzalo Tejada kontrabaxuak osatzen dute. Egun, jazzeko saxofoi irakaslea da, Musikenen.

Iñaki Salvador (pianoa). Donostian jaioa (1962). Pianoa, akordeoia, harmonia, kontrapuntua eta fuga instrumentuen ikasketa klasikoak burutu zituen bere hastapeneko musika ibilbidean. Jesus Gonzalez Alonso eta Francisco Escudero maisu ospetsuen ikasle izan da, besteak beste.

Musika modernoan eta jazzaren eremuan autodidakta ere bada. Dave Lebnan, Richie Beirach eta Billy Hart bezalako musikari garrantzitsuek antolatutako mintegietan hartu du parte Salvadorrek. Artista askoren musikari laguntzaile ere bada. Gainera, jazz talde propioak zuzentzen ditu.

Jaso dituen sari ugariaren artean, Donostiako, Getxoko eta Berlingo jazzaldietan irabazitakoak dira aipagarriak. 1997. urtean pianojole kataluniar handiaren izena daraman Tete Montoliu Lehiaketaren lehen edizioa irabazi zuen. 1999. urtean, berriz, Elorrioko Arriola kultur aretoak Musika Sari Nagusia eman zion.

Egun, Musikaren Pedagogia-ko irakasle da Euskal Herriko eta Espainiako sona handiko hainbat musika eskolatan.

EMANALDIAK ▶

Mariachi Artizar taldeak zabaldu zuen 2005eko Gau Giro, uztailearen 1ean. Bidaia bikotearen emanaldia iritsi zen ondoren, uztailearen 8an. Gaur, hirugarren ekitaldia izango da: Special Trio hirukotearen kontzertua. Iraila bitarte, estilo guztietako musika izango da entzungai herrian. Zinema saioak ere antolatu dituzte. Hauxe aurtengo Gau Giro-k oraindik emango duena:

HILAREN 21A, OSTEGUNA
Kolonbiako Balet Folklorikoa. 22:30ean, Euskal Herria plazan.

HILAREN 29A, OSTIRALA
Tolosako Musika Banda. Aparteko kontzertua eskainiko du bandak, 22:30ean, Plaza Berrian.

ABUZTUAREN 9A, ASTEARTEA
'Los chicos del coro.' Zinema kalean. 22:30ean, Amaro zuzoan.

ABUZTUAREN 10A, ASTEAZKENA
'El penalti mas largo del mundo.' Zinema kalean. 22:30ean, Amaro zuzoan.

ABUZTUAREN 26A, OSTIRALA
Julia Leon. Sefardien musika emanaldia, 22:30ean, Plaza Berrian.

IRAILAREN 2A, OSTIRALA
Tolosa Session. Tolosako musikarien jazz emanaldia, 22:30ean, Fronton kafetegian.

hilberria ▶

Esteban Leunda Eizagirre

Zarauzko itsas haize finaren grazi eta kasta ona zure patxada oroitu orduko gure barnean dagona zure alboan gertu izan dugu umore eta zoriona gogoan dugu zure irria gogoan zaitugu aitona.

Zure sendiak

▶ Hileta Zumarragako parrokian egingo da, GAUR, arratsaldeko 19:00etan

ZUMARRAGA, 2005eko uztailearen 15a



▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio berean

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

EKONOMIA ▶

«Asuncion sistema publikoan sartzea da berme bakarra»

LAB sindikatuak balorazioa egin du eskualdeko klinikako enpresa hitzarmenaz

IRATXE ETXEBESTE

ELArena jaso genuen joan den astean, eta Tolosako Asuncion klinikako enpresa hitzarmenaren inguruan balorazioa egin nahi izan du LAB sindikatuak ere, «lantokiko ezaugarriak eta bertan egiten den jarduera aintzat hartuta». Lehenik eta behin, Asuncion klinika pribatua dela ekarri nahi izan du gogora LABek: «Bertan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lotutako kontzertu bidez, Tolosaldeko sistema publikoak beregain hartu beharko lukeen biztanleriaz arduratzen dira. Hau da, geure eskualdeko ospitalea da, eta Osakidetza antzeko beste ospitaleek betetzen dituzten betekizun berdinak betetzen ditu».

Tolosaldeko LABeko ordezkarien hitzetan, lantoki horretako langileen lan baldintzak «enpresariarekin lotu daitezkeen akordioen arabera» dira, eta, ondorioz, langile horiek sistema publikoarentzat egiten dute lan, baina soldata, lanaldia, gizarte eskubideak, egindako lanaren onspena, lan zamak... «ez dira inondik inora hurbiltzen sistema publikoetako langileen mailara».

Horrexek berak Tolosaldeko biztanleriari «bestelako ondorioak» ekarri dizkiola uste dute LABekoek: «Inguruko eskualdeetan ez bezala, gurean biztanleria ez da giza-baliabide berdinekin zaintzen, lan erritimoak ez dira berdinak eta lan



Asuncion klinikaren Enpresa Hitzarmena zeresana ari da ematen. L. M.

baldintzei lotutako sorospen kalitatea ez da berdina».

Sindikatu abertzaleko ordezkariak diote egoera horretan eta baldintza horietan ekin ziotela 2005eko enpresa ituna negoziatzeari: «Berau, orohar, ez da beste urteetakoarekin alderatuz oso bestelakoa, baina badu ardura bat: Asuncioneko zuzendaritzak egindako eskaintza berria». Eskaintza horren oinarria zera da: bost urteko ituna sinatzea eta Osaki-

detzako langileen ordainsariarekiko soldata %85 homologatzea. LABeko ordezkarien esanetan, aldaketa egon da zuzendaritzako kideek gisa horretako eskaintza egiteko, eta aldaketa hori, «Asuncion klinikak 2004-2009 urteetarako egindako egitasmo estrategikoan datza».

Hain zuzen, egitasmo horren bidez «euskarri bat pentsatu zuten klinikak Osasun Sailarekin egin beharreko negoziazio-

ari begira, eta gurea inguruko edozein eskualde ospitalari homologatzeko prozesuari ekin zioten, jardueraren, kalitatearen eta finantzaketaren analisiari dagokionean».

Sistema publikoaren alde

Epe baterako lotu duten negoziazio orokorraren homologazioari dagokionez, «egoki» irizten dio LABek ordainsari arloari. «Hala ere, eta zerbitzu publikoak pribatizatzearen aurka eta zerbitzu horien sorospen kalitateari eustearren egiten ari garen bidean, Asuncion klinika sistema publikoan sartzearen alde azaltzen gara», esan dute eskualdeko LABeko ordezkariak.

Izan ere, «hori da berme bakarra langileen arteko berdintasuna lortzeko: gure plantila Osakidetzaokan sar dadin, 1.592 orduko lanurtea izan dezagun eta %100eko ordainsariak, gizarte eskubideak, ohe-pertsona ratioak eta lan erritimoak egokiak izan daitezten, besteak beste». Era berean, Tolosaldeko erabiltzaileak atentzio sanitarioan «pertsonek eta baliabide gehiagoren bitartez eta lan zama eta eritmo txikiagoaren bidez gainerakoekin pareka daitezten» ere horixe lortu behar dela dio LABek: Asuncion klinika sistema publikoan sartzea, alegia: «Horrek hobetuko bailuke egun ematen dugun sorospenaren kalitatea».

GIZARTEA ▶

Harizpe elkarteak bidaia antolatu du irailerako

Harizpe jubilatuena eta pentsiodunen elkarteak kultura eta turismoa uztartzen dituen bidaia antolatu du irailaren 1etik 7ra. Extremadura (Espainia) eta Portugalgo hainbat herri bisitatuko dituzte. Irteera joan nahi dutentzat zabalik da jada izenematea: bazkideek 445 euro eta gainerakoentzat 460 euro ordaindu beharko dute. Harizpe elkarteak Emeterio Arrese plazan duen egoitzara joan behar da horretarako, ahalik eta azkarren.

PALA ▶

Lau bikote ariko dira gaurkoan lehiari Berazubini

Tolosa CF-k antolatutako XXXVII. Paleta Txapelketaren baitan, bi partiduko jokatuak dituzte gaur, 19:00etan hasita, Berazubiko frontoian. Lehenik eta behin, Goitiak eta Oterminek Landaren eta Huegunen kontra jardun beharko dute, eta jarraian ariko da Apeztegiak eta Maizak osatutako bikotea Agirrek eta Egizalez osatutakoaren aurka. Asteburuan atseden hartuko dute txapelketako parte-hartzaileak, eta astelehenetik aurrera jarraituko du lehiak. Zabaleta eta Urdanpilleta Balerdiren eta Artolaren aurka ariko dira egun horretan lehendabizi, eta jarraian jokatuko dute Goitiak eta Oterminek Agirreraren eta Egizalzen kontra eta Sarasuak eta Txapartegik Bengoaren eta Bengoetxearen aurka. Ostiralean dira azken partidukoak.

ITUNAREN EDUKIAK ▶

Asuncion klinikako enpresa hitzarmen berriaren oinarriak honakoak direla jakinarazi du LAB sindikatuak:

Iraupena. 5 urtekoa.
Lanaldia. Aurreneko lau urtetan urteko ordubate eta

azken urtean, 3 orduz.

2009rako, 1.670 ordu osatu behar dira.

Ordainsariak. 5. urtean Osakidetzarekin homologatzea —oinarriko soldatari, jaiegunei, gaurkotasanari eta jai bereziei dagokionez—.

hitza

txokoa^{lagunen}

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

VILLABONA ▶ KIROLA

Behar-Zanako errebote taldeak Euskal Herriko Txapelketa du jokoan

Bigarren mailako finala jokatuko dute Hiriburun; irabaziz gero lehenengo mailan jokatzeke aukera izango du



Behar-Zanako Sergio Sanchez lehenengo guantea eta Jon Alejo bigarren guantea partida batean. HITZA

IMANOL GARCIA

Behar-Zanako erreboteko senior taldeak bigarren mailako Euskal Herriko Txapelketako finala jokatuko du bihar. Donibane Garaziko Goizeko Izarra taldearen aurka izango da. Txapelkunak izanz gero, datorren denboraldian lehenengo mailan jokatzeke aukera izango dute. Horrela izanez gero, ordea, Villabonan ezingo zituzten partidarik jokatuko, frontoia txikiagia baita maila horretan aritzeko. Partida Hiriburun, Baiona ondoan, jokatuko da 10:30ean.

Sergio Sanchez lehenengo guanteak, Jon Alejo bigarren guanteak, Xabier Mitxelena hirugarren guanteak, Xabier Aiertza sakalariak eta Igor Alejo paradoreak osatzen dute boskotea. «Ez genuen espero finalera iristea», azaldu dio Xabier Mitxelenak HITZARI. «Ez daukagu urtero finala jokatzeke aukera, 16 bat taldek jokatzen dutelako bigarren mailako liga honetan». Gogotsu daude eta irabazteko aukerak ikusten dituzte. «Ligan, etxean jokatuko genuen eta partida irabazi genuen, baina orain beste frontoi bat izango da», dio Mitxelenak.

Behar-Zanak autobusa antolatuko du, ahalik eta zaletu gehien joateko aukera izan dezaten. Eskaintza edozein errebotezaleentzako da nahiz eta Behar-Zanako bazkide ez izan. Autobusa 09:00etan aterako da. Itzulia, partida amaitu eta ordu bete beranduago egingo da. Bidaia doan izango da, baina segurunez frontoian bertan sarrera kobratuko zaie ikusle. Izena emateko telefono hauetara deitu daiteke: 606 959 347 (Txomin, 20:00ak arte) eta 661 285 041 (Andoni). Behar-Zanako bazkideentzako zerrenda bat dago elkartearen.

VILLABONA ▶ IX. GARAGARDO AZOKA



Martxan da atzotik Irrintzi elkarteak IX. Garagardo Azoka

I. Garcia ▶ IX. Garagardo Azokari eman zitzaion hasiera atzo Txermingo Ikastolan. Gaur, bihar eta etzi izango da aukera garagardoa edan eta saltxitxak eta beste ohiko jakiak dastatzeko, 18:00etatik 01:00etara. Udaltzaingoak, autoz etortzen direnei, Berrian, 1eko kamioien aparkalekura (Burdinazko Zubiko biribilgunetik pasata, ezkerrean) joatea gomendatzen dute. Argazkian, Irrintzi elkarteak lehenengo tragoa hartzen eta gonbitea luzatuz garagardo azokara joateko. I. GARCIA

ASTEASU ▶ SANTAMAÑAK

Gaur arratsaldean igoko dute Tranpazulo

I. GARCIA

Gaur arratsaldean botako dute txupinazoa eta igoko dute Tranpazulo Asteasuko Santa Marina auzoan. Ondoren afaia eta erromeria izango dira.

Santamaña jaien ekitaldi nagusienetakoa eta ikusmin handia sortzen duena zaldi lasterketa da. Igandean egingo da Olarrea-Goiko jatetxearen ondoko larretan. Guztira 18 parte-hartzaile izango dira, horietatik hiru eskualdekoak: Iñaki Eizagirre asteasuarra, Asier Mujika zizurkildarra eta

GAUR ▶

Asteasuko Santa Marina auzoan egingo diren ekitaldiak.

20:00. Txupinazoa eta Tranpazulo igoera.

21:00. Herri afaria.

23:00. Jose Luis Laja eta Alabier trikitariak.

Goizaldera. Txokolatada.

Xabier Gogorza ibartarra. 18:00ak aldera hasiko da lasterketa eta 420 metroko ibilbideari bost buelta eman behar diko dizkiote.

UDA HONETAN JANTZI EZAZU
HITZAREN KAMISETA

Villabonako garagardo azokan zuekin!

MAXOLA TABERNA
Erribea, 4
Tel.: 943 69 05 91

SHEPHERD'S
Kale berria, 25
943 69 31 54
Antxin, 1 • VILLABONA

JOE BAR

Taberna Rainbow
Nagusia 46 • Tel.: 943 69 35 16

IRV ALDETA EDARITEGIA
Kale Berria, 15
Tel.: 943 69 09 41

20150 VILLABONA

ALEGIA ▶ KARMEN JAIK

Festa giroan murgildu dira txintxarriak jaien lehen egunean

Atzo hasi ziren festa ofizialak suziriaren jaurtiketarekin; festa alternatiboetan mozorroen eguna antolatu zuten



Eguerdian jaurti zuten suziria, udaletxeko balikoitik herritarren begiradapean. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Atzotik festa giroan murgildurik daude Alegiako txintxarriak. Karmen jaietako hasiera eman diete dagoeneko herrian eta igandera bitarte ekitaldiz beteriko agenda dute zain. Eguerdian jaurti zuten udal-txeko balikoitik suziria. Eduardo Tormok izan zuen ohorea, alboan ikasleak zituela eta «pozik» azaldu zen. «Ikasleak dira gaurkoan protagonistak, txikiak zirenetik izan naiz beraien eta oso berezia da beraien egotea», azaldu zuen San Joan eskolako irakasle ohiak.

Suziriarekin batera herriak ere eztanda batera izan zuten eta, sargoriari aurre eginez, ekitaldi guztietan ongiatorria eman zie-

ten. Denetarik izan zen gazte-txo zein helduentzat. Festa eguerdian hasi bazen ere, goiza umeei zuzenduriko ekintzaz beterik egon zen. Horrela, mural pintaketa eta musika izan ziren nagusi. Arratsaldean ere giro bikaina sortu zen kaleetan barrena, Potxin eta Pitxin paillozok plazaraturiko kale antzerkiaren harira. Ondoren, urtero legez, Txintxarri abesbatzaren gaztetxo eta helduek kontzertua eskaini zuten Joan Bataiatzailearen elizan; toperaingo bete zen Alegiako ahots goxoez gozatu nahi izan zuten guztiek. Gauean, berriz, zikiro jatea izan zen. Jende andana bildu zuten afariak, bai eta ondoren Mikel Markez abeslari ospetsuak zinema aretoan eskainitako kontzertuak ere. Laja Egu-

ren eta Ziolarren Azken Jazbana erromeriarekin amaitutzat jo zuten Karmen jaien lehen eguna.

Alternatiboak mozorrotuta

Jai alternatiboak, aldiz, herenegun hasi ziren. Atzokoan mozorroen eguna izan zen, eta herria pirataz bete zituzten. Barkua ere ez zuten ahantzi eta tabernaz taberna *nabigatu* zuten, musika doinuez alaiturik. Poteoaren ostean, zahagiardoa izan zuten eta gauean Zeck, Brigada Criminal eta Biok taldeek kontzertuak eskaini zituzten Gaztetxean.

Gaur ere aspertzeko astirik ez dute izango Alegian. Ekitaldi nagusia zahagiardo bateratua izango da, gauean bi festetako

EGITARAUA ▶ GAUR

Gaur ere ekitaldiz beteriko eguna izango dute alegiarrek.

FESTA OFIZIALAK

09:00. Herriko txistulari eta trikitilarietako alaituriko diana.
09:00. Jubilatuek antolatutako mendi marxa.
09:30. Giroarte dultzaina taldeak alaituriko diana.
11:00. Haurrentzat jolas parkea goiz eta arratsaldean Larraitz auzoan (11:00-13:00 eta 15:00-18:00).
11:00. Incansables txaranga kale ibiliko da egun guztian zehar.
11:00. Jubilatuentzat hamaiketako plazan.
12:30. Txistu kontzertua

Danbolin Zar taldearekin enparantza nagusian.

16:00. Toka txapelketa herriko plazan.
21:00. Zahagiardo bateratua Aralar bideko zubian.
23:30. Rock kontzertua, Javi P3Z orkestra eta Split 77 taldeen eskutik.

FESTA ALTERNATIBOAK

14:00. Herri bazkaria. Ondoren Xantoxen txapelketa sari banaketa.
21:00. Zahagiardoa bateratua Aralar bideko zubian.
23:00. Kontzertuak Zorabioak, Trikiño eta Ayvala taldeekin. Gau guztian zehar Gaztetxea zabalik.



Txistulariek goizeko lehen orduetan alaitu zituzten kaleak. N. LATABURU

egitarauak bat egingo baitute, «elkarren artean dagoen hartuena oso ona delako». Honenkin batera, ez dira faltako musika, haurrentzako jolasak eta helduentzako ekitaldiak,

ohi den bezala; guztiak ere xede bakarra dutelarik, herritarren gozamina piztu ahal izatea, hain zuzen ere. Asteburua ere freskagarria izango da bero guztien aurka.

HORTZ-KLINIKA
Manuel Renobales Iturbe doktorea
M^a Pilar Martínez Andueza doktorea
Larraitz, 15-1. esk.
Tel.: 943 65 41 12 ALEGIA

ISKIÑA TABERNA
Goizean Salda
Gauean martxa!
INTERNET
San Juan, 59 ALEGIA
Tlf.: 943653097

ALEGIKO ZAHARREN EGOITZA EDARTEGIA
Gosariak, pintxoak, meriendak eta... **GIRO JATORRA!**
Alegiko plaza • Tel.: 943 65 58 00

ONDA janaridenda
Ondo pasa festak!
San Juan, 44 • ALEGIA • Tel.: 943 65 30 40

KULTURA ▶

Astelehenean hasiko dira Gaztelun 'Kutsidazu bidea, Ixabel' filmatzen

Iraila erdialderate iraungo dute grabaketa lanek; Eguberrietarako amaituta izatea espero dute eta otsailean ikusi ahalko da euskal zinemetan; bost kapituluz osaturiko telesaila etorriko da ondoren

IÑIGO TERRADILLOS

Urtebetez gidioa prestatzen jardun eta astebeteko entseguak eta gero dena prest dago astelehenean bertan *Kutsidazu bidea, Ixabel* filmaren grabaketa lanekin hasteko. Horrela azaldu zuen atzo pelikular lan taldeak, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean emandako prentsaurrekoan.

Eneko Olasagasti Tentazioko ekoizleak azaldu bezala 8 aste inguru iraungo dute Gaztelun eta Asteasun egingo diren filmaketa lanek, beraz, irailaren erdialderako amaitzea espero dute. Filma prest Eguberrietan izango da, eta oraindik ez dakiten arren, otsailean euskal zinemetan ikusteko aukera izango omen da. Horren ondoren telebistarako egingo dituzten bost kapitulutako telesaila ikusi ahalko da Euskal Telebistan. Telesaila eta filma euskaraz egingo dira, eta guztira 1.200.000 euroko (200 milioi pezetan) aurrekontua dute biek; Eusko Jaurlaritzak eta ETBek egin dute posible proiektua, eta *Berriak* ere parte hartu du, besteak beste filmaren nondik norakoak azalduko dituen web orrialdean. REC, Orio produktzioak eta Tentazioa ekoiztetxeak, berriz, ekoizpenaz arduratuko dira.

«Oso pozik gaude, hasteko irrikaz», azaldu zuen Mireia Gabilondoa zuzendari eta aktoreak. Fernando Bernues eta biak



Ezker-eskuin: zutik, Joseba Apaolaza, Jose Luis Ugarteandia, Iñaki Zapirain, Iñake Irastorza, Asier Hormaza eta Xabier Zapirain aktoreak, Unai Ibarbia (Orio produktzioak) eta Isabel Illoro (REC); eserita, Joxean Sagastizabal gidoilaria, Ainere Tolosa eta Mikel Losada aktoreak, Mireia Gabilondoa zuzendaria eta aktorea, Fernando Bernues zuzendaria eta Eneko Olasagasti Tentazioko ekoizlea, atzo, Koldo Mitxelena. I. TERRADILLOS

solasean ari zirela pentsatu zuten istorio polita izan zitekeela zinema eramateko, eta «herri txiki bateko euskararen mundu hori gure ustetan oso polita eta kontraste handikoa da», dio Gabilondok. Bestetik, Bernuesek gertutik ezagutzen duela euskara ikasten ari direnen mundua azaldu zuen, eta hainbeste arrakasta izan duen nobelaren gakoa gertuko mundu bat islatzen duela eta arrakastata hori zineman eta telebistan errepikatzea gustatuko litzaiokeela gehitu zuen.

Erromantiko-linguistikoa

Antzerkia bezala, bai pelikula eta baita telesaila ere Joxean Sagastizabalen eleberrian oinarritua dago. Azken bietan, eta batez ere telesailean, ordea, aldaketa batzuk egin dira luzatu egin behar izan baita. «Liburuan ez bezala gehiago kontatuko zaio Juan Martini Ixabel konkistatzea, mutil laguna izango baitu, eta horrela maitasunezko triangulua sortuko da; Begoren pertsonaia ere berria

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.

da, hau da, amaren erantzukizuna izango duen ahizpa zaharrena», azaltzen du Sagastizabalek, eta besteen artean Desastreko Afro, Anjel Alkainen pertsonaia eta gizonen pu-

tetxeekiko zaletasuna ere aipatu zituen aldaketan barnean.

Aldaketak eta istorio osoa laster ikusi ahalko ditugu zinemaren eta etxean. Batzuek, ordea, lehenago ere izango dute

filmaren berri. Gazteluarrak eta asteasuarrak edo eta bertaraten direnak, hain zuzen, bi herri horien paisaiak erabili nahi izan baitituzte *Kutsidazu bidea, Ixabel* filmatzeko.

IBARRA-IRURA ▶ GIZARTEA

Unibertsitate mailako euskarazko ikastaroak egiteagatik diru-laguntzak

Ibarrako eta Irurako udalek emango dizkiete bertako herritarrei

ERREDAKZIOA

Uda honetan, unibertsitate mailako udako euskarazko ikastaroetan parte hartzeko eskaria egin dutenek diru laguntza jasotzeko aukera izango dutela jakinarazten zaie.

Horrela izango da Ibarraren kasuan, diru laguntzak emango baititu Udalak Udako Euskal Unibertsitateak nahiz Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen dituzten euskarazko ikastaroak egiteagatik. Diru laguntza hauek jasotzeko euskara ikasleek dituzten baldintza berberak bete behar dira eta irizpide berei jarraiki emango dira, hau da, Ibarrako erroldan izena emanda egon

beharko da, eskaera orria bete eta eskaerarekin batera ordainketa agiria eta ikastaroa egin dela ziurtatzen duen agiria erarri behar da. Kasu honetan eskaerak egiteko epea irailaren 30ean amaitzen da.

Bestalde, Irurako Udalak ere onartu du diru laguntzak ematea arautzen duen udal-ordentantza eta, honen bidez, 2005eko udan UEUko edo EHUko euskarazko ikastaroetan izena eman duten herritarrei, diru laguntza jasotzeko eskaera egin dezaket.

Interesatuta egonez gero, ondorengoak dira izena emateko kontuan izan beharko direnak: uztailearen 26a izango da azken eguna diru laguntza eskatzeko,

eta Irurako udaletxean egin beharko da; aldeaz aurretik udaletxean eskatutako eskabide-orria behar bezala beteta eraman beharko da; aitortza-agiria behar bezala beteta izan beharko da; nortasunaren egiaztagiraren fotokopia aurkeztu beharko da, banketxe edo aurrezki kutxak sinatutako agiria, kontu korrantearen titularrak bera dela egiaztatzen duena, eta banketxe edo aurrezki kutxak sinatutako agiria, gastuaren diru-sarrera egin dela egiaztatzen duena. Azkenik, ikasleak egin duen ikastaroa amaitzean hari dagokion unibertsitateak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Agurrak. HITZAN argitaratutako agurrak Interneten ikusi nahi? Sartu eskualdeko egunkariaren webgunera!



LEITZA ▶ KIROLAK

Nafarroako Segalari Txapelketa Leitzan jokatu dute azkenik

Asteburu honetan, igandean, Iturenen jokatzekoa bazen ere, hurrengo 25era, jaieguna da, atzeratu dute



Garagartzako belatsoan, markatuta dago jada, txapelketarako belar-saila. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Nafarroako Segalarien Txapelketa, azkenik Leitzan jokatu dute, hilaren 25ean, eguerdian,

12:30ean, Estazio gainaldeko belatsoan. Hauxe jakinarazi zuten atzo Nafarroako Herri Kirol Federaziotik bertatik, prentsa-ohar baten bidez.

Aipatutako txapelketa hau, igande honetan zen egitekoa Iturenen, herri kirol ikuskizunak antolatuta baitzituzten egun horretarako bertan, aiz-

kolariak, motozerrarien erakusketa eta harri-jasotzaileak —Josetxo Urrutia leitzarria tar-tean—, segalari txapelketarekin batera. Baina, gainerako jaialdiak aurrera jarraitzen duelarik, «izendatuta zegoen soroko belarrarekin arazoak» izan omen dituzte, federaziotik aiartatu zuten eta segarekin egitekoa zena, ez da burutzerik izanen han. Baina irtenbidea aurkitu dute: «Hasieran egin, ez egin, zalantzak izan genituen, bi parte-hartzaile bakarra izanik, txapelketa egiterik bazen ezbaian izan baikenuen; behin egin egin behar zela erabakita, lekua bilatu genuen. Iturenen, baina azken orduko arazoengatik gabe gelditu ginen; baina azkenean, zailtasun guztien gainetik, lekua bilatu dugu eta Leitzan bertan eginen dugun», agertu zuten bertatik. HIRZAK atzo bertan egiaztatu zenez, lekua prestatzeko lanetan aritu ziren: Garagartzako belatsoan, txapelketarako belar-saila markatuta zegoen dagoeneko eta ingurukoak egiten ari ziren, ikusleentzat lekua egokitzeko.

Nahi zuten eta lortu dute, eta gehitu zuten, «ilusio handiz» ekinen diote kirol honi, izan ere «aurreneko aldia izanen da Nafarroako Segalari Txapelketa egiten dela», aitatu zuten, orain arte ez zegoelako segalaririk bertan. «Eta orain baditugu bi», ziurtatu zuten: «Biak, sega gustuko izanik, kirol honetan gogo biziz ari nahi dutenak», argitu zuten. Segalaritan bat, Dabid Mariñelarena, Lantzekoa da eta jakina, beste, Jon Kanflanka leitzarria.

LEITZA ▶

Mujika gogoan izan dute, bere hilketaren 4. urtemugan

Igandean eginen dute UPNko zinegotzi zenaren urteurren ekitaldia kideek

J. ASTIBIA

Atzo, uztailak 14, lau urte egin zituen Jose Jabier Mujika UPNko zinegotzia ETAK egindako atentatuan hil zuela. 2001. urtean jazo zen hori, eta bere kide eta lagunek gogoan izan zuten, eguerdiartean bere oroimenez elkarretaratzea egin baitzuten, bere oroigarriaren ondoan zehazki. Ekitaldian zehar, besteak beste, lore eskaintza ere egin zuten.

Urteurren ekitaldi ofiziala, ordea, igandean eginen omen dute alderdikideek, lekuan bertan, eguerditik aurrera.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe Tolosa: 652889

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autobus.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egotiza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ GIZARTEA



Holako beroa: kaleak hutsik...

Jaione Astibia ▶ Iragarrita zegoen eta asmatu zuten. Gurean behinik behin, bero galanta egin zuen atzo eta halaxe neurtu zuen honako termometro honek, 37 gradu zentigraduko hotzberoa, edo sekulan izatekotan, beroa —hotza berorik eza omen denez—. Noski, ordu horietan ez zebilen inor txoko ere kalean, ez eta itzalean ere, hori ere egiaztatuta ahal izan zenez. J. ASTIBIA

LEITZA ▶ GIZARTEA



... eta jendea? putzuan, noski!

J. Astibia ▶ Beroari aurre egiteko modua bilatu zuten, ordea, askok. Sahatspean freskagarria hartu eta noizean behin putzuan bustialdia hartuz, ederki peatu zioten Leitzan, igerilekura joandakoek. Goizetik, egun pasa bertara joandakoak ere bazirelarik, arratsalde erdian jendez lepo beteta ageri zen. Beste batzuk erreka aldera ere egin zuten ihesalditxo. J. ASTIBIA



AGENDA ▶

ANTZERKIA

Belautza. Irrintzi taldearen *Bakartxoren zapatilak* 11:00etatik Kultur Etxean.
Berastegi. Bihar 19:15ean herriko antzerki taldeak *Maritxu nora zoaz* antzezlan eskainiko du Muñagorri eskolako gimnasioan.
Irura. Mairu antzerki taldeak *Krabelinak uhartean* bakarriketa eskainiko du Trinketean 22:00etan.

DEIALDIAK

Altzo. San Inazio jaien barruan uztailaren 29rako zikiri jatea antolatuta dute. Txartelak salgai daude Arandia jatetxean 18 eurotan.
Zizurkil. Umorezko bakarriketa lehiaketa antolatuta du Udalak. Euskaraz, orijinalak eta 500-700 hitzekoak. Sariak: 500 euro lehenak, 300 euro bigarrenak eta 150 euro herriko lehenak. Irailaren 15a arte eraman daitezke Aurrerako udal bulegoetara.

JAIK

Alegia. Ikusi egitaraua.
Asteasu (Santamaña). Txupinazoa eta Tranpazulo igoera 20:00etan; herri afaria, Jose Luis Laja eta Alabier trikitalariak eta txokolatada.

MUSIKA

Alegia. Karmen bezpera izaki, salbea abestuko du Txinbarri abesbatzak Juan Bataiatzailearen elizan 19:30ean.
Tolosa. Gonzalo Tejada Trio Fronton kafetegian 22:30ean Gau Giro barruan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Ibarru. Ugarte, M.T. Euskal Herria 46. 943 67 32 74.

IRRATIA

Txolarre (Fm 107, FM101)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa:* Kontseilua, Gafzaundi eta UEMAre arteko hitzarmena, ESAIT Tourren, kultur agenda, lehiaketa, 19:00. Errepiakapena.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Giroa bero-bero

TOLOSA ▶ Olasagasti eta Erasunen igandeko apustua aitzakiatzat hartuta, jokozaileen katedrala den Kantabriko nagusiarekin aritu da hizketan HITZA



Paskualtxo —Erasunen prestatzailea— eta Tomas Armendariz atzo Kantabriko tabernan, atzean iganderako apustu batzuk dituztela. J.GOIKOETXEA

JULEN GOIKOETXEA

Kantabriko sartu orduko edonor konturatuko da taberna soila baino zerbait gehiago dela. Barraren atzeko paretan zintzilik egon ohi diren paper nahiz karteak nortasun berezia ematen diote. Are eta gehiago igande honean ospatuko den apustu sonatu horren aurreko egunetan. Herri kirolak Euskal Herriaren berezitasunetako bat direla ez du inork zalantzan jarritzen; eta apusturik gabeko herri kirolak ez zuen inork irudikatzen duela gutxi arte. Gaur egun ordea, txapelketek, kirol apustuei gain hartu diete.

Hala ere, txapelketa horien inguruan jokoak bere horretan jarraitzen du. «Gure aurrekoek guri utzi diguten beste ohitura bat da apustuarako zaletasun hau». Tomas Armendariz Kantabriko tabernako nagusiak HITZAREKIN egindako solasaldian esan du hori. Azkenaldian Eusko Jaurilaritzak apustuen inguruko legea egiteko asmoa duen zurrumurruari buruz «gehiegieria» iruditzen zaiola adierazi du. «Ez zait iruditzen inongo kalterik sortzen duenik apustu egiteak. Guk apustu egileen artean bitartekari lana egiten dugu. Herri kirolen inguruan sortzen den giro guztia joko-

rengatik sortzen da eta hori debekatu behar bada, Euskal Herriak bere xarmaren zati bat galduko du». Jendea kirol hauek ikustera animatzearen arrazoi nagusizat jotzen du Armendarizek jokoaren mundua. «Hori desagertuko balitz, herri kirolek beherakada nabarmen bat izango lukete eta hori gertatzea tamalgarria litzateke». Apustuak egiteko moduak aldatu egin direla gaineratu zuen. «Garai bateko apustuak beste era batera izaten ziren. Bakoitzak bere baliabideen arabera ahal zuena jartzen zuen jokoan. Gaur egun aldiz jendeak taldean jartzen du di-

rua». Afera honen inguruan bere kezka argi eta garbi erakutsi zuen Kantabrikoako. Igandeko apustuari buruz ere egin zion galdera HITZAK Armendarizi. Juan Manuel Erasun eta Joxe Mari Olasagastiren arteko erronkaren aurrean dirua nahiko parean dagoela esan zuen, nahiz eta balantza zertxobait Olasagastiren aldeira erorita dagoela gaineratu. Beraz, nahiko norgehiagoka parekatua izango dela dirudi igandekoak. Dudarik gabe apustuak izango dira han eta hemen, bataren zein bestearen alde; baina denek ezingo dute esan apustua Kantabrikoan egin zutela.

AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri!
HITZAREN egoitzara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

